

De Rerum Natura

@zaldiero



HIZPIDEAK

Aulki bat hutsa, bestea betea

Martxelo Otamendi

Akusatuen txandari eman zion atzo hasiera Oriol Junqueras Kataluniako lehendakariordeak Espainiako Auzitegi Gorenean prozesuari buruz egiten ari diren epaiketan. Erabat politikoa egin zuen mintzaldian, «aulki hutsaren» argudioa izan zen maizenik erabili zuena. Behin eta berriro errepikatu zuen kontzeptu hori, Junquerasen iritziz irudi horrek azaltzen duelako argienik prozesuaren arduradun nagusiak auziaulkira eramán dituen egoera.

Historian zehar gertatutako negoziatioak ekarri zituen gogora ERCKo buruak: Norvegia eta Suedia, Kanada eta Quebec, Erresuma Batua eta Eskozia... Kasu horietan guztietan, eta beste askotan, mahai baten inguruan batzartuta negoziatu eta adostu dira independentzia nahi zuten nazio horien eskaerak. Hitzaren bidez eman zaie irtenbidea. Hitz, mahaian eta hautetsontzian. Hori egiten saiatu dira azken hamarkadan Kataluniaren independentziaren aldeko alderdi eta erakunde publikoak, baina parean ez dute inork aurkitu. Horren ordez, botere exekutiboaren, judizialaren eta legegilearen erantzun koordinatua eta errepresiboa jaso zuten.

Hutsa egon da Kataluniako auziari konponbide demokratikoa eman behar zion mahaiaren pareko aulkia. Aulki hori hutsa egotearen ondorioz, beteta dago egunotan Auzitegi Gorenaren akusatuen aulkia.

Hanka-motzak



HITZ
ESTZANAK
Andoni Egaña

Aspalditxo izan nuen ezagutzeko zoria, eta gizon atsegina da, kontu-kontari aritzeko aparta, bertsozale amorratua eta bertsoan ere berak aitortu baino gehixeago egiten duena. Duela hirurogeita bost urte iritsi zen Euskal Herrira Albaceteko Lezua jaioteritik. Zortzi urte zituen Pacok. Familiak Ataungo Aiara jo zuen lehenik, eta handik urte gutxira Lazkaora. Iritsi berriñan Aian bertsolariak

entzun zituen lehen aldi hartan bertsomindu omen zen. Mutiko erneak ikasi zuen euskaraz; trebatu zen bertsoan. Eta egin zuen lekutxo bat garai hartako bertsoen munduan. Francisco Tejados izaki, Iñaki Linazasorok gajjar-tzaile lanak egin zituen batean *Patxi Teilatu* izendatu zuen. Berak batere eragin gabeko polemikaren batean ere katigatu zuten. Aurrezki Kutxa baten egutegian azaldu zen *Nacien Cáceres y soy euskaldun* goiburuean. Gipuz-

koan bizi zen hainbat cacerestar mindu egin zen. Albaceten jaioa zen Patxi, ez Cáceresen. Gainera, eurek ez omen zuten nortasuna eta izena aldatu beharrik edo gaztelaniari uko egin beharrik hona lanera etorri arren...

Egunotan hedabideetan azaldu da Manu Bendala bertsolari. Sevillan jaio eta hazia. Euskalduna. (Ere bai, behintzat). Zorte on Aramaioko saioan. Eta ongietorriak entzutera datozen senideak.

Nocturne Op. 9 No.2

Chopin en Nokturnoetako ezagunenarekin hasten eta bukatzen da *Txillardegiren* klinka dokumentala, Kote Camachok zuzendua. Jose Luis Alvarez Enparantza zena agertzen da pianoan. Ikus-entzunezkoak 2005eko elkarrizketa bat du ardatz, eta honela dio euskararen osasunaz: «Gauza batzuetan aurrrera egin dugu, dudarik gabe, batez ere corpus mailan; baina estatusaren mailan, eta, batez ere, instituzio ofizial eta politiko en aldetik, potu nabarmena dago». Batek baino gehiagok antzera iritziko genioke zazpi Korrika eta geroko egoerari (kasurako, euskaraz jarduteagatik erantzintzak jarri dituen bi isunak).



LARREPETIT
Garazi Arrula Ruiz

Hogeita bi urterekin idatzi zuen Chopinek pieza jakin hori. Mende bat geroago eta adin bertsuarekin, Txillardegiri Bilbon zegoen, ingeniari itzala karreraren, eta han hasi zen euskaraz ikasten; «gauko 12etatik 3etara». Gero preso, gero irakasle, gero etakide, gero erbestea. Atzerrian, 28 bizitoki ere izan zituela eta pianoa beti aldean zeramala kontatzen du Miren Rubiok biografia kale-ratu berrian.

Chopin ek ez zuen nokturnoa sortu, baina idatzitako 21 piezek musika konposizio hori ezaguturazi zuten, eta gaur nokturnoak harekin lotzen ditugu. Ezin gauza bera esan Txillardegiri eta euskarari buruz, nahiz eta beharbada azken urteotan pertzep-

zioa aldatzen ari den, bereziki Herri Ekimeneko eta *Jakin*-eko kideen ekinaz. Chopinek kadeten iraultzaren aurrean harturiko jarreraz baliatu ziren batzuk haren ekarpenari itzal egiteko, nahiz eta, zorionez, kalitatea lehenetsi zaion. Konpositoreak aberriari zion maitasunak, ordea, izan du haren maisulanetan eraginik, eta ezin hori gutxietsi.

Erromantizismoaren ikur da poloniarra, eta literatura modernoaren ikur euskalduna. Eskoletan jakinarazi behar da Txillardegiri nor zen; ez soilik batuaren bultzatzaile nagusietako bat izan zelako, ez soilik existentzialismoa euskaraz pentsatzen lehenetakoa izan zelako, ez soilik ekintzailea eta intelektuala aldi berean izan daitekeela praktikan erakutsi zizugulako. Baita Chopinen Nokturnoak ederki jotzen zituelako ere.